

**IZEN ABIZENAK:** \_\_\_\_\_  
**NAN:** \_\_\_\_\_  
**KONTAKTUA:** \_\_\_\_\_



DATUEN BABESA. Irurako Udalak, inprimaki honen bitartez eskuratzen dituen datu pertsonalak, bere eskuduntzaren arabera eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko erabiliko ditu. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu. Zuri dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzu idatziz, aurrez- aurre, posta arruntaz edo Udalera zuzenduz: San Migel Plaza, 1 20271 Irura edo telematikoki gazteria@irura.eus.

**HERRIAN, SUMATZEN AL DUZU ZERBITZUREN BAT FALTAN? ZEIN EZAUGARRI BETE BEHARKO LITUZKE ZERBITZU HORI EMATEKO ERAIKIN EDO ESPAZIOAK?**

---

---

---

---

---

---

---

---

**Eskerrik asko!**

**Informazio gehiagorako:**  
Telefonoa: 943 69 26 74  
E-posta: gazteria@irura.eus  
Harrera bulegoa: astelehenetik ostiralera, 9:00tatik 14:00tara

# **HIRU UDAL-ERAIKINEN INGURUAN ELKARREKIN ERABAKITZERA GOAZ!**

## **BAZATOZ?**



*Información disponible en castellano en la oficina de atención al ciudadano del Ayuntamiento o en la página web [www.irura.eus](http://www.irura.eus)*

Irurako Udalak hiru udal-eraikin hauen erabilpenaren eta egokitzapenaren inguruko partaidetza-prozesua jarri du martxan, 16 urtetik gorako herritarrekin batera herriko hiru espazioen erabilera adostu eta beharrezko egokitzapenak lantzeko.

## PROZESUAREN HELBURUAK:

- Irurako herritarren espazio beharrak ezagutzea.
- Hiru udal-eraikinen erabilera posibleak identifikatu, adostu eta lehenestea.
- Hiru udal-eraikinetarako beharrezko egokitzapenak lantzea, kontuan hartuta udaletxeko irisgarritasun baldintzak betetzeko egokitzapenak lehentasuna izango dutela

## ZER HIRU UDAL-ERAIKINI BURUZ ARI GARA?



Haurreskolako  
lehen solairua



Udaletxea



Zaharretxeko  
beheko-solairua  
(Taberna zena)

## IZEN-EMATEA BEHARREZKOA DA

943 69 26 74 telefonora deituaz edo [www.irura.eus](http://www.irura.eus) webgunean COVID-19aren prebentziorako segurtasun eta higiene neurriak hartuko dira

## 1. FASEA Prozesuaren oinarriak adostu

### JARRAIPEN BATZORDEA

Prozesua berme guztiekin egiten ari denaren jarraipena egitea du funtzio. Udaleko 2 ordezkari politikok eta 2 herritarrek osatzen dute.

## 2. FASEA Informazio fasea

### BISITA GIDATUA

Urriaren 2an, ostirala, arratsaldeko 17:00etatik 19:00tara hiru udal-eraikinak bisitatzeko aukera egongo da, 10 pertsonako txandatan. Eman izena eta hurbildu zaitez!

### PROPOSAMENAK HELARAZTEA

Atzeko galdera erantzun eta Kulturunean eta trinketean egongo diren postontzietan utzi zure proposamena, baita webgunean ere. Egin zure ekarpena, urriak 16 bitarte!

## 3. FASEA Gogoeta fasea

### GOGOETA-SAIOAK \*1

Azaroak 2 eta 16, astelehenak, 17:00-19:00. Lekua zehazteke. Lehenengo saioan espazio beharrak partekatuko ditugu eta bigarrenean berriz, erabilera eta egokitzapen proposamenak landu eta lehenetsiko dira. Anima zaitez! Eta ez ahaztu izena emateaz!

## 4. FASEA Itzulera

### ITZULERA-SAIOA \*1

Azaroak 30, astelehena, 17:00etan, lekua zehazteke. Partaidetza-prozesuaren emaitzen berri emango da. Aldez aurretik izena eman behar da.

\*1 Gogoeta- eta itzulera- saioetan zaintza zerbitzua egongo da. Izen ematean adierazi beharko da.